



# GAZTE- EKIN BIZKAIA EGITEN DBH 4.



<https://gazteak.bizkaia.eus>



# ZENTZU KRITIKOA 1

## GAITASUNA

Zentzu kritikoa.

## LOTUTAKO GAITASUNAK

Ekimena, arazo ebazpena, erabaki hartzea, etengabeko ikaskuntza.

## GAITASUNAREN DESKRIBAPENA

Gai bat ikuspuntu desberdinetatik aztertu eta ebaluatzeko gaitasuna bezala definitu daiteke, eta hortik abiatuta, arrazoiketan eta argudioetan oinarritutako ikuspegi propioa lortzea.

## HELBURUAK



- Norberaren ideiak sustatzea.
- Informazioa behar bezala aztertzea, arrazoibide sendoak izateko.
- Malgua izatea besteen alternatibak eta iritziak kontuan hartzeko.
- Ikuspuntu desberdinak onartzea.
- Norberaren ideiak sendo defendatzea argudioekin.

## KURTSOA

DBH 4.

## GAITASUNA ESKURATZEA

Gaitasun hau lortzeko, beharrezkoa izango da jakin-mina izatea, gogo irekia izatea, ahalik eta informazio gehien izatea, alternatibak identifikatzea, aukera bat baino gehiago kontuan hartzeko malgua izatea, arrazoibideak baloratzeko inpartziala izatea, konponbideak lehenestea eta ez arazoak, edo oker egon daitekeela onartzeko umiltasuna izatea.



# ZENTZU KRITIKOA 1

## GAITASUNA LANTZEKO DINAMIKA

Eztabaida: sare sozialak

### DESKRIBAPENA

Proposatzen den dinamikaren helburua ikasleek haien artean interesatzen zaien gai bati buruz eztabaidatzea da, kolektiboaren profilararen arabera gai berari buruzko iritzi desberdinak eman ahal izan ditzaten. Kasu honetan, sare sozialak eta horiek pertsonengan, gizartean, beren buruarengan eta abarretan dituzten ondorioak planteatzen ditugu. Hala ere, hainbat gairi buruzko eztabaidak egin daitezke: adierazpen-askatasuna, animaliekin esperimentatzea, prostituzioa legezkatzea, berdintasuna...

Eztabaidaren aurretik, proposatutako gaia (sare sozialak) azalduko du orientatzaileak, eztabaidara bultzatzen duten galderak eginez: sare sozialak onak al dira? Alde negatiboak dituzte? Ezinbestekoak al dira gizartean? Beste batzuk agertuko dira? etab. 4-6 pertsonako talde bakoitzak sare sozialen aldeko edo kontrako planteamendua hartuko du. Talde bakoitzari ere esleie diezazkioke jarrera horiek orientatzaileak. Taldeek defendatuko duten planteamenduari buruzko informazioa lortu behar dute eztabaidaren aurretik. Informazioa lortu ondoren, ikasgela bitan banatzen da fisikoki, jarrera desberdinak irudikatuz. Taldeek orientatzailearen laguntzarekin antolatu behar dituzte haien mintzaldiak. Eztabaidarako arauak errazak izango dira: inork ez du hiru aldiz baino gehiagotan parte hartuko eztabaida ez monopolizatzeke eta pertsona guztiek parte hartu ahal izateko, argudiaketa arrazoitua emango da eta iritzi desberdinak errespetatuko dira.

### DENBORA-ESTIMAZIOA


2 ordu.

### BEHARREZKO MATERIALA

Ordenagailuak eta orriak.

### EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Argudioen maila, emandako kopurua baloratzuz.
- Argudioen maila, arrazoibidea baloratzuz.
- Erabilitako informazioa.
- Iritzi desberdinak onartzea. Errespetua.
- Orientatzailearen ikuskerapena.
- Ikasleen iritzia jarduerari buruz.



# ZENTZU KRITIKOA 2

## GAITASUNA

Zentzu kritikoa.

## LOTUTAKO GAITASUNAK

Ekimena, arazo ebazpena, erabaki hartzea, etengabeko ikaskuntza.

## GAITASUNAREN DESKRIBAPENA

Gai bat ikuspuntu desberdinetatik aztertu eta ebaluatzeko gaitasuna bezala definitu daiteke, eta hortik abiatuta, arrazoiketan eta argudioetan oinarritutako ikuspegi propioa lortzea.

## HELBURUAK



- Norberaren ideiak sustatzea.
- Informazioa behar bezala aztertzea, arrazoibide sendoak izateko.
- Malgua izatea besteen alternatibak eta iritziak kontuan hartzeko.
- Ikuspuntu desberdinak onartzea.
- Norberaren ideiak sendo defendatzea argudioekin.

## KURTSOA

DBH 4.

## GAITASUNA ESKURATZEA

Gaitasun hau lortzeko, beharrezkoa izango da jakin-mina izatea, gogo irekia izatea, ahalik eta informazio gehien izatea, alternatibak identifikatzea, aukera bat baino gehiago kontuan hartzeko malgua izatea, arrazoibideak baloratzeko inpartziala izatea, konponbideak lehenestea eta ez arazoak, edo oker egon daitekeela onartzeko umiltasuna izatea.



# ZENTZU KRITIKOA 2

## GAITASUNA LANTZEKO DINAMIKA

Fake-ak harrapatzen

### DESKRIBAPENA

Proposatzen den dinamikaren helburua *fake news* aurkitzea da, Interneten eta sare sozialetan hain ohikoak direnak. Ariketa 4-6 laguneko taldeetan egingo da. Lehenik eta behin, albiste faltsuak zer diren, nola sortzen diren, zer helburu lortu nahi duten, nork egiten dituen edo albiste bat faltsua den jakiteko modua aztertuko da. Informazioa eta dokumentazioa aldeztu behar dira.

Informazio hori lortu ondoren, ikasleek bi albiste faltsu bilatuko dituzte Interneten edo sare sozialetan, haien konplexutasunagatik lehen begiratuan gezurrezkoak edo egiazkoak diren bereiztea zaila direnak, eta hautaketa arrazoituko dute. Ondoren, azalpena egingo da gelan, albiste faltsuei buruzko iritzi pertsonal arrazoitua emanez.

### DENBORA-ESTIMAZIOA


2 ordu.

### BEHARREZKO MATERIALA

Ordenagailuak eta orriak.

### EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Albiste faltsuei buruz emandako informazioa.
- Emandako albiste faltsuen konplexutasuna.
- Norberaren irizpidea albiste faltsuei buruz.
- Orientatzailearen ikuskerak.
- Ikasleek jarduerari buruz duten iritzia.



# ZENTZU KRITIKOA

**USTE DUZU KONTUAN HARTZEN DITUZULA GAINERAKO IRITZIAK, NAHIZ ETA DESBERDINAK EDO ZEUREAREN KONTRAKOAK IZAN? NOLA EGITEN DUZU?**

**ZURE USTEZ, ZEIN ALDERDIK LAGUN DIEZAZUKETE EDOZEIN GAIRI BURUZKO ZURE IKUSPEGIA EDO IRIZPIDEA IZATEN?**

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

